

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 530/2017 Erabakia, irailaren 26koa, onartzen duena Nazio Batuen Garapen Jasangarrirako 2030 Agendarekin bat egitea

2015eko irailean, Nazio Batuen egoitzan Garapen Jasangarrirako Agenda berria onartu zen. "Gure mundua eraldatzen: 2030 Agenda garapen jasangarrirako" izenburupean, estatu kideek ere onarpena eman zioten pobrezia, desberdintasunei eta klima aldaketari aurre egiteko eta planetaren aldeko tresna horri. 2030 Agendak ibilbide orri globala ezartzen du, zeinak garapen jasangarriaren hiru dimentsioak batzen baititu: ekonomia, gizartea eta ingurumena.

Emaizta aurrekaririk gabeko irismena eta garrantzia dituen agenda da; ekintza plan ausart eta eraldatzailea, ardatz dituen pertsonak, planeta, oparotasuna, bakea eta itunak, "inor atzean ez uztea" printzipiotzat hartuta.

2030 Agenda inplementatzeko erantzukizuna nola administrazioek hala gizarte zibileko beste erakunde batzuek daukate. Arabako Foru Aldundiak, Arabaren garapenaren ardura duen erakunde denez gero, jotzen du berari ere badagokiola agenda berriaren deia erantzutea, beste erakunde eta eragile batzuekin koordinatuta, logikoki. Alde horretatik, 2015-2019 agintaldiko plan estrategikoan 2030 Agenda jaso zen.

Horregatik, diputatu nagusiak proposatuta, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bileran gaia aztertu ondoren, honako hau

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Onartzea 2030 Agendarekiko atxikimendua, 2030 Agendaren onarpenaren 2. urteurrenean, pertsonen, planetaren eta oparotasunaren aldeko ekintza plantzat hartuta, zeina 2030. urtera arte politika publikoan hartu beharreko erabaki eta ekintzen gidari izango baita.

Bigarrena: Erabaki honek onartzen den egunetik bertatik aurrera izango du indarra, ALHAOn argitaratuko den eguna edozein dela ere.

Gasteiz, 2017ko irailaren 26a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZALEZ VICENTE

Diputatu Nagusiaren Kabineteko zuzendaria

NEKANE ZEBERIO GANZARAIN